



175

ALEA

arabako aldizkaria



PATRICIA LOPEZ ARNAIZ

**"BARNE BEHAKETA LAN
HANDIA DU AKTOREAK"**

oreka i.t.

corporate balance

INFORMATIKA ZERBITZUAK ETA SAP NEGOZIO-SOLUZIOAK



HAMAR URTE ENPRESAK HOBETZEN

EZAGUTU GURE WEBGUNE BERRIA



WWW.OREKAIT.COM



OREKA INFORMATION TECHNOLOGIES
Zumar Hiribidea 1, IV Eraikina · 243 Bulegoa
01013 · Vitoria-Gasteiz (Araba) · 945 067 219
orekait@orekait.com





ALEA 175

2018-12-14 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

E. ANDA

Aurkibidea

- 4 **Sakonean:** Olio-errota berri bat martxan jarri dute Lantziegon.
- 8 **Protagonista:** Patricia Lopez Arnaiz aktorea.
- 12 **Iritzia:** 'Hori sarkasmoa al da?', Irati Iciar.
- 13 **Iritzia:** 'Zer da errealtatea?', Cira Crespo.
- 14 **Gutuna:** 'Badator 21. Korrika'.
- 16 **Iruditan:** ALEA festa.
- 18 **Gizartea:** Haur eta Gazteen Psikiatriako Unitatea.
- 20 **Gizartea:** Nardeaga parkea diseinatzeko prozesua Aramaion.
- 21 **Ekonomia:** Erremolaxaren prezioa murriztu nahi dute.
- 22 **Esanak eta datuak.**
- 23 **Laburrak.**
- 24 **Zinema:** Beñat Fontanedari elkarrizketa.
- 26 **Bertsolaritza:** 'Testuingurutik kanpo', Arabako Bertsolari Elkarteak.
- 28 **Gure Bazterrak:** Navaridas.
- 29 **Irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

*Araba da
erronka*

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martínez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Miriam Biteri

Esti Lanao

Estiburu Ugarte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Andía

Inprenta

GERTU inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

Asteko kolaboratzaileak: Irati Iciar, Cira Crespo eta Arabako Bertsotzale Elkarteak.

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA saillean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Urre berdea ateratzeko, errota berri bat

Erroiz izeneko olio-errota martxan jarri du aurten Mikel Izagirrek Lantziegon, aitona-amonen herrian eta Arabako Errioxan olibondo gehien dituen zonaldean. Oliba biltzeko eta ehotzeko kanpaina ondo hasi da Erroizen, eta dolare berrian kalitateko 80.000 kilo oliba inguru jasotzea espero du Izagirrek.

Testua: **Estitxu Ugarte Lopez de Arkaute**
Argazkiak: **PHOT.OK.**

Azaro eta abendu artean olibak arbolatik hartu eta dolarean sartzeko garaia da Arabako Errioxan; hortaz, lana amaitzeko tenorean izango dira egunotan Lantziegoko Erroiz erroitan. Azaroa amaieran 50.000 kilo oliba inguru jasota zituen Mikel Izagirrek, eta 40.000 gehiago jasotzea espero zuen, kanpaina amaitu baino lehen. "Lehenengo urtea izateko oso marka ona egiten ari gara", aitortu dio ALEA aldizkariari.

Bi urteko prozesu administratibo konplexuaren ostean zabaldu ditu ateak Lantziegoko olio-errota berriak. Negozioak martxan jartzeko eta ekintzailatza sustatzeko lau haizetara zabaltzen diren mezuen atzean dagoen benetako errealitatea ezagutu du Erroiz dolareko jabeak; eta ez da samurra. "HAZIRA jo genuenean proiektua interesgarria zela esan ziguten hasiera-hasieratik, olibondoa sustatu nahi dutela Arabako Errioxan, gazteen ekimena... baina errealitatea da oso zaila dela pausuak ematea, oso motela da prozesua, hilabete asko itxoitzen pasa dugu; inbertsioak egiteko eskatzen ziguten, jakin gabe aurrera egin ahal izango genuen. Zorionez, honetaz aparte beste lanpostu batzuk ditugu, bestela ezinezkoa litzateke".

Bidean aurkitu duten traba handienetako bat lizentzia lortzea izan da, Arabako Errioxan legedi berezi bat baitago upeltegia ez den negozioa zabaltzeko. Gainera, dolarea kokatzeko pabiloia herri-eremutik kanpo egoteak are gehiago trabatu du bidea.

Oztopoak-oztopo, martxan da Lantziegoko errota berria; hain zuzen, olibadiaren inguruan eskualdean ematen ari den

Jasotzen duten oliba guztien gaineko kontrol zorrotza egiten dute Mikel Izagirreren Lantziegoko Erroiz dolarean.





Oliba iluntzen hasten denean kilo gutxiago jasotzen dira, baina olio bizia lortzen da, eta oso zapore berezikoa.

mugimenduaren adibidea. "Asko landatzen ari da, mahastiak lizentzia behar duelako, eta olibondoak ez. Lursail txiki bat duenak landatzen ditu". Dena den, Izagirrek berak azaldu duenez, zaila da Arabako Errioxan mahastiaren inguruan dagoen kulturarekin lehiatzea, eta kostatzen da jendea olibadiaren landaketa hobetzen joateko konbentzitzea: "Inausketak zaintzeko, oliba behar denean jasotzeko eta errotara garaiz eramateko animatu behar da jendea, baina martxan gaude".

Tradiziozko jarduera

Ez da kasualitatea Lantziegon kokatzea Arabako Errioxako laugarren olio-errota; izan ere olibaren tradizio handia dago bertan, eta Kuadrilla osoan olibadi gehien duen udalerrria da. Hein handi batean, udal dolare zaharrari esker mantendu da olibondoaren zaintzari buruzko ezagutza bertan, nekazariak aukera izan dutelako beti etxeko olio gertu egiteko. Herriko dolare zaharrak baimena du olibak ehotzeko, baina soilik etxean kontsumitzeko; ezin da olio merkaturatu.

Erroiz dolareko jabearen etxean ere betidanik izan dituzte olibadiak, eta inoiz ez dute kanpoko olio kontsumitu. "Nire aitonaarekin hitz egiten baduzu, esango dizu Lantziegon jende guztiak batik bat olio egiten zuela, eta gero bakoitzak bere mahastitxoa zuela etxean, ardoa egiteko. Mahastiak izan zuen zabalpenarekin olibondo asko altxatu zituzten. Lantziegon, aldiz, mantendu ziren dezente, bailara batean sartuta gaudelako, aldapa asko dago eta mahastiak landatzeko desegokia delako; baina Ebrotik behera, Guardiatik Bastidara, ez da olibondorik geratzen".

Hortxe ikusi zuen Izagirrek merkatu-hobia: aitona-amonen ondareari eutsi, eta kalitate handiko produktua ekoiztea. "Guk egin dezakegun apustua kalitatearen aldekoa da. Espainian egon daitekeen olio kantitate guztiarekin eta prezioekin ezin dugu lehiatu; horregatik guretzat oso inportantea da kalitatea zaintzea, prezioa justifikatu ahal izateko".



Hala, eusko labela duen olioarekin eta olio ekologikoarekin lan egiten dute Erroizen gehienbat; eta horretarako kontrol zorrotzak ezarri dituzte oliba jasotzen dutenetik errotara sartu eta olio botilaratzen duten arte. Dolareak zerbitzua ematen die norbanakoei zein olio egiten duten Arabako Errioxako upeltegiei eta markei. Gainera, badituzte beren olio marka propioak: Erroiz eta Oliturri.

Oliba zaintzeko erronka

Hilabeteko epean, gutxi gorabehera, egiten da olibaren kanpaina Arabako Errioxan. Lehen oliba berdeak iluntzen hasten direnean, *enveratzen* direnean hain zuzen, hasten dira jasotzen. Mota horretako sei edo zazpi kilo oliba behar dituzte litro bat olio ateratzeko. "Errendimenduan galtzen dugu, baina izugarritzko olio bizia lortzen da, oso-oso berezia, *gourmet* olio". Kanpaina amaieran, aldiz, lau kilo olibarekin litro bat olio ateratzen da. "Kalitatea ona da, kanpaina hasierakoan eta amaierakoan, baina ezaugarri desberdinak ditu olioak. Beltzagoa bada suabeagoa da, eta merkeagoa da, litro gehiago ateratzen direlako".

Azken produktuaren kalitateak, besteak beste, olibaren egoerak eta transformatzeko moduak markatzen dituzte, eta lan handia egin behar dute olibariek mailari eusteko. "Asko kostatzen zait oliba jasotzea, beste lurralde batzuetan baino gehiago. Hartutako guztia arbolatik hartua dago, ez lurretik. Lurrean erortzen baldin badira ez dira jasotzen, horrek baduelako usteldura prozesu bat, fermentazio prozesu bat, eta olioan islatuko litzateke". Bestalde, oliba jasotzen dutenetik transformatu arte gehienez 48 ordu pasatu behar dira.

Izagirrek azaldu duenez, olio atera eta gero berehala kontsumitu daiteke, baina komeni da hilabete bat edo bi itxoitea, zaporea egonkortzeko, eta dekantazioari esker garbitzeko. "Botilaratzen dugunean ez du hezetasunik, garbi-garbia da, olioari ez diogu ezer gehitzen".

Olio desberdina

Arroniz motako oliba da Ebrotik gorako lursailetan zabalduta dagoena, Nafarroan eta Arabako Errioxan. Merkatuak asko maite du oso olio berezia ematen duelako. "Berdea hartzen dugunean garratza da, oso indartsua, ahoan gelditzen den zaporea du, indar handia du baina ez da deserosoa". Hartara, Arabako Errioxako olio ekoizleek bere alde duten ezaugarri nagusia da olio desberdina egiten dutela; "berehala nabaritzen du jendeak arronizkoa dela".

Alta, Arabako Errioxako olibondo txikia eskasa da; izan ere errendimendu altua du baina kilo gutxi ematen ditu urtero beste olibondo espezie batzuekin alderatuta. ■■■

Olibondoa, paperean

El olivo en Rioja Alavesa, compañero centenario liburua idatzi eta aurkeztu berri du Fernando Martínez de Bujandak, garai batean Arabako Errioxako Olioaren eta Olibaren Elkarteko lehendakaria izan zenak. Hogeita hamarretik gora adituren kolaborazioak eta olibarien testigantzak jaso ditu Martínez de Bujandak; eta, horien bitartez laburbildu ditu laborantza horren inguruko historia eta etorkizunera begira dauden aukerak.



Parral
taberna

**menu begetarianoa eta gosariak
asteazkenean zehar - asteburuetan razioak
asteartero aktibazio kulturalak**

PARRALTABERNA@GMAIL.COM

SAN FRANCISCO XABIER KANTOIA 4

TLF 945276833

GASTEIZ-ARABAET

"Pertsonaiak gu geu gara, eta arrasto luzea utzi diezagukete"

PATRICIA LOPEZ ARNAIZ AKTOREA

Sorkuntzari lotutako zirrikitu bat bilatzeko asmoarekin heldu zen Patricia Lopez Arnaiz Ortzai antzerki taldera, formazioa jaso eta esperimentatzeko gogoz. Hasierako asmoa ez bazen ere, ofizioak erabat harrapatu du aktorea, eta ikus-entzunezko proiektu sorta zabala kateatu du azken urteetan.

Testua: **Anakoz Amenabar**. Argazkiak: **Erlantz Anda**.

Antzerkian lehendabiziko saioak egin zituen txokora bueltatu da Patricia Lopez Arnaiz (Gasteiz, 1981), Ortzaik Gasteizko Alde Zaharrean duen aretora. Bi urte egin zituen Iker Ortiz de Zaratek gidatutako lantaldearen eskutik arte eszenikoen sekretuak deskubritzen, eta hunkituta etorri da hasierako agertokira. Geroztik, arrapalada bizia hartu du haren zine ibilbideak; azken urteetan, besteak beste, *La peste* eta *La otra mirada* serieetan, eta Julio Medem edota Alejandro Amenabarren azkeneko pelikuletan parte hartu du. Aktore onenaren Ondas saria jaso berri, etenaldi arina egin du etxean.

Zer oroitzapen dituzu Ortzai areto honetan?

Hemen oso ondo pasa dut. Ni profesio honetara heldu naiz, baina ez zen nire helburua; asmoa hona etortzea eta formazioa egitea zen, eta horrekin disfrutatzen nuen. Hemen inplikazio handia egon da, buru-belarri aritu ginen, eta, beharbada handinahia da esatea, baina hemen deskubritu nituen ofizioaren zokoak, antzerkia bide bat dela, oso sakonera eraman nahi zaituena; adierazpen formal bat da, baina barruan arakatu

beharra dago, eta gauzak gertatu daitezen jaso eta emateko prest egon behar duzu. Bidaia egin dudan lekua da espazio hau niretzat.

Noiz heldu zinen bertara?

Unibertsitatean Publizitatea amaituta, oso galduta nengoen, eta sorkuntza habitat moduko baten bila hasi nintzen. Denetarik egin nuen, azaletik: argazkiak, pintura, musika talde batean abestu... Horretan nenbilela, lagun batek esan zidan: badago gure parte bat inoiz aldatuko ez dena: batzuk transformatu egiten dira, eta beste batzuk ez. Eta horren bila etorri nintzela uste dut. Antzerkiak zerikusi handia du atentzio lan batekin, meditazio moduko bat da, zure barrutik pasatzen dena ikustea, gorputzarekin eta emozioekin lan egiten duzu. Norberaren behaketa lan handia dago, presente egoteaz kontziente izatea, eta uste dut nire izaerarekin bat datorrela. Oso gustora sentitzen nintzen habitat horretan.

Antzezlan desberdinetako elementuak ikus daitezke aretoan. Baten bat da berezia?

Bai, Miren Pompis laneko elementuak daude hemen, eta berezia izan zen. Obra honekin, orain nire errepresentatea denak ezagutu ninduen; hiru-lau pertsonaia nituen eta arin-arin



"Sarbidea izan zen Ortzai"

Gorbeialdea.

Etxea eta zerua.

Ortzai taldea.

Ofizioaren misterio zoragarrietan hasteko lekua; sarbide-errititik badu zeozer.

Baratza taldea.

Bidaia txamanikoa gorputzaren bitartez.

Hell Dorado aretoa.

Etxea eta lagunak.

Publizitatea.

Ahaztuta daukat. Baina aukera bat izan zen kulturarekin harremana zuen jendea ezagutzeko, deskubritzeko. Musika, zinema, bibliografia... eta Italian Erasmus bat.

Amets bat antzerkian?

Solemnitare gabeko pertsonaia miserable bat egitea gustatuko litzaidake.

Pelikula bat?

'A woman under the influence', John Cassavetes-ena. Gena Rowlands ikaragarri dago honetan.

transformatu behar nuen. Hor interesa piztu eta deitu zidan Loinaz Jauregik. Nik zalantza nuen eta bera tematu zen. "Pelikula eder bat dut esku artean, dudak alde batera utzi eta etorri froga egitera", esan zidan. Hor engantxatu nuen ikus-entzunezkoekin, *80 Egunean* pelikularekin.

Gaur egun, kanpotik ikusita, zurrunbilo batean sartuta zaudela dirudi.

Eta barrutik ere hala da, kar-kar. Azken batean, ezarritako abiadura bat da, zuk ezin duzu erritmoa markatu; abiadura oso bizia izaten ari da, eta horretara egokitzen ari naiz. Bestalde, asko bidaiatzen ari naiz, eta ia ez dut harremanik etxeko eta lagunekin, eta abiadura sentsazio horrek ere badu horrekin loturarik, lur hartu eta frenatzeko oso momentu gutxi daudelako. Lanaz gainera, inplikazio pertsonal eta emozional handia eskatzen du esposizioak.

Orain dela 15 urte desberdina izango zen?

Ziur aski bai. Duela 15 urte ez dakit ahal izango nukeen; orduan publikoaren aurrean agertzeak atzera egiten zidan, ofizioan pentsatzen nuenean ezaguna izateko aukerak ikara ematen zidan. Anonimotasunean erosoago sentitzen nintzen. Baina, egia da, aukera heldu denerako nolabait



'La Peste' seriearen bigarren denboraldia. MOVISTAR/ JULIO VERGNE



Patricia Lopez Arnaiz, Ortzairen aretoan.

pixkat prestatuta nengoela. Lanarekin ere hori bera pentsatu dut, eskaintzarik helduko al da oraindik prest ez nagoenean? Ez dakit hori ere gertatu daitekeen, ez dakit aukerak heltzen diren fruitua heldu denean eta antolaketa horrekin. Prestatzen zoaz, eta datorrena datorrela.

'La peste' seriea izan da jauzia emateko aukera?

Hasiera batean *El guardián invisible* izan zen nolabait merkatu batean sartzeko aukera; eta ikus-entzunezkoak gogoko nituela konfirmatu nuen hor. Baina, horren ostean, hainbat hilabetez geldu egon nintzen eta nire aurreko lanera bueltatu nintzen, *La peste* agertu zen arte; emakumezko protagonista bat, aurrekontu ikaragarria duen lan batean eta ikaragarri gustatzen zaidan Alberto Rodriguezekin. Hori, modu batera, konfirmazioa izan zen: ofizio honetan egon naiteke, badaude pertsona profesionalak nigan konfidantza dutenak erantzukizun handiko lan baterako.

Ondoren heldu zen Julio Medem.

Hori ere ikaragarria izan da. Oso zalea naiz *La ardilla roja* edota *Vacas* pelikulena, eta harekin lan egitea zerbait sinbolikoa zen niretzat: "Ostia! Medemekin lan egingo dut!". Sekulako albiste izan zen. Eta horren ostean heldu zen TVEko seria, Amenabarrekin...

Zuzendari batetik bestera, alde nabari da?

Ikaragarri desberdinak dira. Lan bakoitza gauza berri bat da. Zuzendari bakoitzarekin profesioaren gauza desberdinak deskubritzen ditut. Amenabarrekin, esaterako, asko disfrutatu dut; saio gutxi izan dira, baina lan oso polita izan da. Gidoia hain ongi dago idatzita ezen ez baituztu bultzatu edo defendatu behar, gertatu egiten da; testuinguruak sentimenduak agerian uzten ditu, eta gauzak gertatu egiten zaizkizu, berez. Amenabarrek heldu ez zaren lekuetara heltzeko irizpideak ematen dizkizu, oso egokiak beti. Nire lan egiteko modua ere aldatu dela uste dut; hasiera batean obraren zerbizura lan egiten nuen eta eman egiten nuen, zuzendu nintzaten. Zalantzak izan ditudanean, argi esan dit berak: zuk egin nahi duzun pertsonaia. Gero eta gehiago ulertzen ari naiz zenbateko borondate kreatiboa izan dezakezun eta nola negoziatu dezakezun hori. Horrela funtzionatzen du; denok ari gara lan honetan gauzak saltzen. Kasu honetan halako zuzendari batek gainbegiratzea luxu bat da; beste gauza bat da bakarrik uztea, hori putada bat izan daiteke erantzukizuna erabatekoa delako zurea; hori ez, zuzendu egin behar zaituzte. Oso erraz

egiten da lan berarekin, zuzendu bai, baina sormen espazio handi batekin.

Nolakoa izaten da sortze prozesu hori?

Kontatu behar dituzun gauzetarako kanal bat bilatu behar da. *El guardian invisible*-ren ostean, prozesu bat izan da berriz deskubritzeko: ez dut gogorutzen noiz ikasi ditudan gauzak, baina egin egiten ditut. Hori egiten ikusten dut nire burua, eta, hara! hau hemendik dator; denbora honetan barneratu ditut erramintak, jakin gabe zertarako egiten nituen hainbat ariketa. Bat-batean teknika bat dudala deskubritzen dut eta edozein teknika plazera ematen du. Barneratuta duzu, eta estrategia lana da azken batean; nola iritsi behar duzun horretara pentsatu behar da, eskura dituzun baliabideekin. Eta dituzun erremintez disfrutatzen duzu, estrategia jokuen antzera. Horrek plazer handia ematen du.

Pertsonaiek zer zama dute aktorearentzat?

Batzuk oso erraz desagertzen dira, eta beste batzuk, arrazoi desberdinengatik, arrasto luzea uzten dute. *La otra mirada* seriea, esaterako, oso intentsoa izan da; bost hilabetez hori izan da nire bizitza, ez da besterik egon. Eta desgaste emozionala handia da. Zure lanean zintzoa izaten

ahalegintzen zara; eguneroko gimnasia bat egiten duzu, irudimen ariketa etengabekoa, eta min egoerak dira horietako asko. Aitaren galera izan da gaietako bat, eta horretan jartzea lortzen duzunean benetan sufritzen ari zara aitaren galera. Ofizio honek duen misterio handietako bat da hori; nik ez dakit ongi neuretik zenbat jartzen dudana, zer naizen ongi ez dakidalako. Azken batean, pertsonaiek gu geu gara, adierazteko modu desberdinak dira, ez gara beste batena egiten ari, zu zeu zara beste egoera batzuetan eta beste zeinu batzuei lehentasuna ematen pertsonaia bat osatzerako garaian. *La peste*-ko Teresarekin, esaterako, asko disfrutatut du: euste-ariketa eginez, gezi zorrotzak botatzen ditu berak. Ni beharbada inpultsiboagoa naiz, baina bizitza errealean askotan pentsatu dut: zer egingo luke orain Teresak?

Alde zail bat ere badu aktore ofizioak.

Lankideekin hitz eginda, lanik gabeko garaiak eta ziurgabetasuna dira ofizio honen alde zailenak. Denok ezagutzen ditugu aktore on ugari, Goya bat jaso eta lan bila daudenak. Momentuz, esperientziarekin oso pozik nago eta gozatzen ari naiz. ■■■

Gabonetan jai!

ABENDUAK 28 - OSTIRALA - 18:00
3-8 urte
Sorgina Txirulina
Ipsin kontaketa
Erica Liqueste
Orbita Arretan

URTARRILAK 2 - ASTEAZKENA - 12:00
MUSIKA GALDUAREN BILA
Eneko Etzebarrieta
4-12 urte / 50 / Euskara
Ostean: Musika Tailerra (Goian)

URTARRILAK 3 - OSTEGUNA - 12:00
ZUTUBERRAK
Eidabe
7-14 urte / 55 / Euskara
Ostean: UrbanDance emanaldi parte-hartzailea (Goian)

URTARRILAK 4 - OSTIRALA - 12:00
BUALÁ
Txaloka Antzerkia
4-10 urte / 60 / Euskara
Ostean: Sukaldaritza tailer bikia (Goian)

UR BILTEGIAN

- Ateak 15 minutu tehenago irekiko dira.
- Ekimena Goian proiektuarekin elkarlanean antolatuta da.
- Saso guztietarako gonbidapenak behariko dira.
- Abenduaren 17tik aurrera Oihanederren eskuragai egongo dira.

OIHANEDER.EUS
TRAIKALAKO PANTOFA, 2. NIVORRIAN

LABORAL | **Diario** | **berria** | **ALEA** | **radio vitoria**

Hori sarkasmoa al da?



IRATI ICIAR
UEU-KO LANGILEA

Horixe galdetzen die Sheldonek lagunei, gogaituta, adarra jotzen diotenean, eta are graziosoago bihurtzen du horrek egoera.

Gabonetarako lagun ezkutuarentzat opari *korrekto ez-merkeegi-itxurako* horietako baten bila nabilela, hara non aurkitu dudan notak hartzeko koaderno sarkastiko bilduma bat atera dutela, "errealitate gordina" erakutsiko omen diguna. Iragarkiaren titularrak horixe zion behintzat, eta –zer nahi duzue esatea– mezu animoso eta *kukiak* dituzten agenda, egutegi, katilu, arkatx eta halakoek apur bat nekatzen nautenez, ba, gogotsu ireki dut *malaletxe* prefabrikatua saltzen didan produktuaren mezua.

Sarkasmoa eta ironiaren arteko diferentziaz zalantzati, googleri galdetu diot eta, antza, ironia erabilia ala ez, funtsean beste pertsona bati zuzendutako trufa da sarkasmoa, mingarria eta garratza, beste hori mindu eta ofenditzeko asmoa duen iruzkin gaiztoa. Nola, orduan, koaderno bilduma oso bat eroslea mintzeko? Hau pagotxa.

Eta behin koadernoak ikusita, susmatu bezala, dezepzioa; gehiago espero nuen, umore beltza, odol apur bat, zaurietarako gatz pixka bat, behazun tanta batzuk...

Bai, ez begiratu hala, zeuk ere erabili duzu sarkasmoa, ironia toxikoa, barruko hori deskargatzeko, norbaiti esan beharrekoak esateko, modu sotilean, ustez inteligentean, beste hori mindu baina berak nabaritu gabe, anestesia apur batekin-edo. Eta bai, alibiatu zaitu, zeure burua zoriondu duzu gainera zure atrebentzia eta etorreragatik...

Azken finean, zeu ere bizirik zaudelako eta umorea ezinbesteko daukazulako ingurukoekin bizitzeko, tentsio sozialen katarsirako, eta kaña apur bat ere behar dugulako, gu hilkor errukiorrok, bizirik gaudela sentitzeko. Bereziki dosi handietan beharko dugu *pret a porter* poztasun, maitasun, elkarbizitza eta familia giroetako garaiak datozkigulako. ■

**ZEUK ERE ERABILI
DUZU SARKASMOA,
IRONIA TOXIKOA,
BARRUKO HORI
DESKARGATZEKO...**

Zer da errealitatea?



CIRA CRESPO
HISTORIALARIA

Pasa den astean, Guggenheimeko erakusketa batera joan ginen. Modernitatera hurbiltzen ziren margo batzuk ikusi genituen. Han geunden bitartean, gure telefono-gidak oso gogoeta interesgarria aipatu zuen: "Gu, mendebaldetarrak, errealitearen menpe egon gara". Hau da, XIX.ean sortzaileak "egiazkotasunaren" morroiak ziren eta kostata lortu zuten ihes egitea. Lehenengo pintzelkada bihurri batzuk besterik ez ziren, gero elementu ezegokiak, eta azkenean, deskonposizioa, itxuragabetasuna, errealitatez kanpoko margoak.

Hortik aurrera, artearen helburua ez zen irudiak oso ondo islatzea izan, kontakizunaren aukerak zabaltzea baizik. Zeren eta mundua ez baita ikusten ditugun gauzak bakarrik. Azalaren atzean badaude garrantzia duten hainbat istorio. Gainazalean geratzen bagara, zer egingo dugu beldurra, esperantza edo maitasunarekin? Ikusten ez diren gauzekin, alegia? Errealitatearekin ez da nahikoa.

Gu animalia bereziak gara. Bizitzearen eta hiltzearen kontzientzia daukagu, adibidez, eta, besteak beste, horrek gizaki egiten gaitu. Are gehiago, kontzientzia sortu zenetik beldurrak eta galderak ere agertu ziren: Zer egiten dugu hemen? Nola iraun dezakegu luzaroan? Hausnarketa honetan sakontzeko sortzaile bihurtu ginen. Bide batez, beste mundu batzuk asmatu genituen, beste aukera batzuk, errealitatetik urrun.

Segi dezagun asmatzen, behar dugu-eta. ■■■

**AZALEAN GERATZEN
BAGARA, ZER EGINGO
DUGU BELDURRA,
ESPERANTZA EDO
MAITASUNAREKIN?**

Badator 21. Korrika

MIREN RICO TOLOSA

AIXKIRIA EUSKALTEGIKO ARDURADUNA

Badator. Berriz hemen dugu bi urtez behin euskaldun guztion barrunbeak astintzen dituen ekitaldi xarmagarria. Badator Korrika, 11 egunez Euskal Herriko txoko guztiak kolorez bete eta jendartea ernatu eta martxan jarriko duen egitasmoa.

Azken hitz horri helduko diot, Korrikak hitz horri bere zentzu guztia eman baitio. Asmoa egia bihurtu da. Horren lekuko, kilometroz kilometro korrika ikusten ditugun poztasun aurpegiak, batzuk leun-leunak besteak zimurrez beteta, baina denak lelo baten atzetik, denak bat eginda, euskarak baduelako garaiezina bihurtuko duen boterea: herriaren boterea.

Horren harira, Txillardegiren izena aipatzea funtsezkoa da, aurtengo omendua eta euskara

bikote banandu ezina dira. Berak ere herrian jarri zuen indargunearen erdigunea. Etxean euskararen presentziarik izan ez bazuen ere, bere kaxa ikasi, eta ordutik mugimendu abertzalean parte hartu zuen euskararen erabilera eta ezagutza bere borrokaren ikur izan zirela. Horrez gain, euskara batuaren bultzatzaile nagusietakoa dugu Txillardegi, eta hari zor dizkiogu zentzu horretan egin diren hastapen eta indar asko. Eskerrak eman

"EUSKARA EZ LITZATEKE
BERA IZANGO TXILLARDEGI
BEZALAKO PERTSONARIK
GABE"

"BIHUR DITZAGUN GASTEIZ
ETA JUDIMENDI
EUSKARAREN
ALDARRIKAPEN IKUR"

nahian, aurtengo Korrikak euskararen alde egindako lana eta esfortzua omendu nahi ditu, euskara ez litzatekeelako bera izango Txillardegi bezalako pertsonarik gabe.

Nabarmendu dudan moduan, herritik hasi eta herriak handi egindakoa da Korrika, eta badirudi aurten auzolanetik jaiotako ekimenak nagusi direla, Euskaraldia kasu. Korrikaren ildotik, Euskaraldiak ere gizarteak bat egitea du asmo, eta guztiok azaroaren 23tik abenduaren 3ra euskara ahoan eta belarrian izan dugu. Noski, eta bihotzean ere bai. Hortaz, zubiak eraiki dira eta badirudi gero eta lokartuago dagoen gizarte baten baitan posible dela euskaldunok ozen oihukatzea eta argi esatea ez garena belauniko bizitzeko jaiok izan eta gurea sutsuki babestu eta maitatuko dugula.

Euskaraldiak eta Korrikak bat egin dute eta pertsonak



Mad Muaselek, Fermin Muguruzak eta La Furiak jarri diote erritmoa Korrikaren kantari. KORRIKA

aktibatzea dute helburu, euskararekiko jarrera positiboa loratzea, horrenbestez, 21. Korrikak *Klika* aukeratu du lelotzat. Freskatzearen klika, ernarazten gaituen klika... mundu aurreratu bati begira dagoen leloa. Izan ere, euskara tradizioa eta historiaren sustrai luzeetara lotu izan da askotan, baina aurtengo Korrikak sustrai horiek galdu ez eta etorkizunari begira dagoen hizkuntza dela adierazi nahi du. Eta ez bakarrik hizkuntza, euskara kultura baten eta mundu baten isla ere bada.

Azkenik, saihetsezina da sentimenduetara jotzea, izan ere, Korrika barru-barrutik bizi dudana esperientzia ahaztezina da. 11 egunez, euskararen lelopean une oro norbait korrika dabilela jakiteak zinez hunkitzen nau. Korrikaro gertatzen zait, gauerdian esnatzea eta pentsatzea, "zein zoro ibiliko da orain Korrika furgonetaren atzean? Eta nor eztarria urratzen korrikalariak animatzeko?". Hala ere, ez dago bakoitzaren herrian eta auzoan sartzen den mementoa baino politagorik, are gehiago aurtengoa Gasteizen amaituko dela jakinda. Bihotza taupadaka, irribarretsu, lasterka, furgoneta, lekukoa eta jendetza. Bihur ditzagun Gasteiz eta Judimendi euskararen aldarrikapenaren ikur.

Badator. Prest Korrika egiteko?

BIDALI ZURE GUTUNA:
erredakzioa@alea.eus

ALEAk eskubidea du gutuna laburtzeko eta alea.eus-en argitaratzeko.



Gasteizen amaituko da 2019ko Korrika; argazkian, 2017ko Gasteizko irudia. ALEA

Confecciones Pinedo, S.L.

Euskal Jantziak

San Antonio, 11
Heraclio Fournier, 15
GASTEIZ



www.confeccionespinedo.com

impresion
arte
Serigrafia Publicitateak

Serigrafia
Tanpografia
Inprimatze digitala
Enpresa opariak

Eskaintza bereziak

Avda. del Cantabrico 12, Pab 26 / 01013 Vitoria-Gasteiz
Tel: 945 25 49 32 / Email: info@impresion-arte.com
www.serigrafia-impresionarte.es



IRUDITAN

Gora kopak!

ALEAkide ugari bildu ziren azaroaren 30ean ALEAren urteurrenaren festan. Josu Kareaga magoaren trukoez eman zioten hasiera Marta Ugartek gidatutako ekitaldiari; jarraian, Aritz Martinez de Luna zuzendariak urteotan izandako babesak eskertu eta "ahalik eta kalitate oneneko" kazetaritza eskaintzeko konpromisoa berretsi zuen. ■■■
Argazkia: Erlantz Anda.



Bidali zure argazkiak testu labur
batekin: erredakzioa@alea.eus



Haur eta Gazteen Psikiatriako Unitatean 1.800 bat paziente artatzen dituzte urtero. IREKIA

Buruko gaitzak tratatzeko gunea

Olagibeleko ambulatorioko instalazio berrietara eraman dute Arabako Haur eta Gazteen Psikiatriako Unitatea. LAB sindikatuak dio atzean dagoen "errealitate gordina" ezkututzen ari dela Osakidetza.

JUANMA GALLEGO GASTEIZ

Buruko gaitzak tratatzeko laguntza behar duten gazte arabarrek instalazio berriak ezagutuko dituzte kontsultara doazen hurrengoan. Kokapena ez da asko mugitu, zerbitzua Santiago ospitale-tik Olagibeleko ambulatiora eraman dutelako. Ambulatorio horretako bosgarren eta seigarren solairuetan jarri dute Osakidetza-

ko Haur eta Gazteen Psikiatriako egoitza berria; hilaren 3an egin dute inaugurazio ofiziala, eta, ohi bezala, agintariak bertaratu dira. Handik bi egunera hasi dira lehen kontsultak.

Besteak beste, harrera-aretoa, kontsultak, taldeen aretoak eta botikina daude bertan. Instalazio berriek 880 metro koadroko azalera dute: orain arte zegoen es-

pazioa baino ia hiru aldiz handiagoa.

Aldaketa honekin "pazienteek intimitate eta erosotasun handiagoa" izango dutela nabarmendu du Jaur-laritzak, ohar baten bitartez. Besteak beste, "kontsul-ten espazioa hobetu eta handitu" dela diote. Lan horietan 320.060 euroko inbertsioa egin du Jaur-laritzak.

Haur eta Gazteen Psikiatriako Unitatean 1.800 bat paziente artatzen dituzte urtero, 11.000 kontsulta baino gehiagotan. Oro-tara, 17 profesionalek lan egiten dute arreta zerbitzuan: tartean, sei psikologo eta bost psikiatra dira.

Arreta emateko adina 18 urtera arte luzatzeko baliatu dute alda-keta; bestetik, hemendik aurrera unitateak Aiarako haur eta gazteen arreta hartuko du bere gain.

Haurrek eta gazteek nozitzen dituzten patologiei dagokienez, besteak beste, egokitze-nahasmenduak, nahasmendu mental larriak, haur-psikosiak edo autismoaren espektroaren nahasmenduak dira artatu beharreko gaitzak. Jaurlaritzak dio halako gaitzei aurre egiteko funtsezkoa dela detektatze goiztiarra, modu horretan errazagoa baita horien tratamendu egokia bermatzea, eta instalazio berriak norabide horretan lagungarri izatea espero dute.

Eguneko ospitalea

Instalazioez gain, berrikuntza gehiago aurkezteko baliatu dute egoitza berriaren inaugurazioa. Horrela, Arabako Haur eta Gazteen Eguneko Ospitalea martxan jarri dutela iragarri dute. Modalitate honen bitartez, pazienteek tratamendu intentsiboa egiteko aukera izango dute, ospitaleratzeak ekar ditzakeen deserrotzeak alboratzeko. Jakina da edozein ospitaleratzeak arazoak sortzen dituela, baina arazo hori bereziki larria da haur eta gazteen kasuan. Hortaz, zerbitzu berriak paziente berezi hauen onerako izango dela espero dute.

Unitatea ez da haurren eta gazteen osasun mentala zaintzeko zerbitzu bakarra. Horrez gain, nahasmendu mental larria jorratzeko, Arreta Intentsiboko Programa martxan dago. Orain arte Angulema kaleko eguneko ospitaleko lokaletan lantzen zuten,



Darpon eta Urkulluren aurrean protesta egin dute langileek. LAB

eta Olagibelera doa orain. Beste tik, Federico Baraibar ikastetxean Terapia eta Hezkuntza Unitatea daukate, hezkuntza-premia bereziak dituzten ume eta nerabeei arreta emateko sinatutako hitzarmen baten barruan.

Pribatizazioa

Arabako Ume Autisten Aita eta Amen Elkartearekin adostutako beste hitzarmen baten barruan, autismoaren espektroko nahasmendua duten haurrei arreta berezia egiten diete.

AURREKOA BAINO IA HIRU ALDIZ HANDIAGO DA EGOITZA BERRIA: 880 METRO KOADROKO AZALERA DU ORAIN

Iñigo Urkullu lehendakaria eta Jon Darpon Osasun sailburua inaugurazioan izan direla aprobetxatuta, salaketa publikoa egin nahi izan du LAB sindikatuak, bisitaren egunean agintarien aurrean hainbat kartel erakutsita. "Trajedun zein zuzendarien" atzean beste "errealitate gordin" bat dagoela dio sindikatuak. "Arabako Psikiatria zerbitzuaren berrantolaketaren aitzakiarekin publikoak izan beharko ziren lanpostuak galtzen" ari dira, sindikatuaren aburuz". Egoera horrek "pribatizazioari ateak irekitzen" dizkiola salatu dute.

Adibide bat jarri dute: Santiago ospitalean, "behin betiko izan beharko zuen 5 urteko garbiketako kontratu bat" bertan behe-ria utzi dute, Olagibelen enpresa pribatu bateko garbiketako zerbitzua egiten duelako.

Aramaiok badu parkerako plana

Txosten batean jaso dituzte hilabeteotan herritarrek eta hezkuntzako eragileek egindako diagnostikoaren ondorioak eta proposamenak.

MIRIAN BITERI ARAMAIO

Amaitu dute Aramaion Nardeaga parkea diseinatzeko prozesua, eta dagoeneko prest dago horren gaineko txostena. Bertan, hasierako diagnostiko faseak utzitako datuak eta proposamenak eskaintzen dira, eta jarraian, eremu guztirako aurrikusitako hobekuntzak jaso dituzte.

Txostenak gogorarazten du jolas tokiaren diseinua modu parte-hartzailean landu dutela azken hilabeteotan, metodologia eta prozesua herri eta eskola komunitatearekin zuzenean jorratuz. Denera, 89 hurrek, 10 hezitzailek eta 16 herritarrek parte hartu dute horretan. Lehen fasean diagnos-

tikoa egin eta hobekuntza proposamenak jaso ziren eta horretarako hiru taldetan banatutako hiru saio egin zituzten: lehenengoa 4 eta 12 urteko umeekin; bigarrena, guraso eta herritarrekin; eta azkena, herriko ikastetxeetan lanean diharduten hezkuntza komunitateko eragileekin. Txostenean parte-hartze prozesutik ateratako

DENERA, 89 HAUR, 10 HEZITZAILE ETA 16 HERRITARREK PARTE HARTU DUTE PROZESUAN

ondorioak zein teknikoki aztertutako klabeak uztartu dituzte.

Denera, lau eremutan dago banatuta parkea. Batetik, irailetik erabilgarri dagoen C eremua edo Bañera parkea dago; udan ur parke gisa funtzionatuko duen gunea da. Azterketak, dena dela, zehazten du urtean zehar beste jolas batzuk egin ahal izateko tokia ere izan behar dela; tartean, skate parkea.

Zaintza eta irudimen gunea, prest Bestalde, A gunean, kultura etxetik gertuen geratzen den eremuan, zaintza eta irudimena landuko lirake. Zehazki, kutxa magikoak, mugimendu askatasuna sustatzea helburu duten pikler jolasak, sukaldea edota tailerra izango lukeen imajinazio gunea eta zurezko toki izango lituzke horrek. Garatuta dago proiektua eta Udaletik iragarri dute laster hasiko direla hobekuntza lanekin.

Aurrera begira, beste bi gune berri aurreikusten ditu txostenak. B gunean, besteak beste, ohe elastikoak, armiarma sarea, kupula itxurako bi domo, enborrezko egitura eta parkea eta eskola lotzen dituen maldan sokak jartzeko asmoa dago. D eremuan, pilotalekutik gertuen dagoen espazioa, sorkuntza eta abentura uztartuko dituen jardueretako gorde da; tartean, ping-pong mahaia, enborrezko zirkuitua, rokodromoa eta mahaia jartzea aurreikusten du txostenak.

Etorkizunean lan egiteko tresna izatea du helburu lanak. Horren arabera, eremu osoa kontuan hartuz "ikuspegi integrala" xertatzen da proiektu zein inbertsioen norabide bat izan eta nondik jo jakiteko. Dena dela, gaineratu du erabakiak hartzeko unean erabaki beharko dela norabide horretan jarraitzea edo ez.



Aramaioko parkeak gaur egun duen itxura. MIRIAN BITERI



Miranda de Ebroko azukre-enpresarekin lan egiten dute Arabako nekazariak. ALEA

Erremolatxaren prezioa murriztu nahi dute

Azucarerak hartutako erabakiak kalte handiak ekarriko dizkie Miranda de Ebroko enpresarekin lan egiten duten ehun bat nekazari arabarrei.

ESTITXU UGARTE GASTEIZ

Datorren urteko kanpainari begira, Azucarera azukre-enpresak erremolatxa tona bakoitzeko pagatzen duen prezioan 6,5 euroko beherapena egingo duela iragarri du UAGA sindikatuak: "Modu horretan, 2015. urtean nekazaritza sektoreko erakundeekin sinatutako akordioa alde bakarretik urratu du Azucarera enpresak; eta prezioetan %20ko jaitsiera ekarriko du neurriak", salatu du Arabako nekazarien sindikatuak.

Erabakia Espainiako Estatuan dituen lantegi guztietan hartuko du enpresak; Miranda de Ebroko (Burgos, Espainia) zentroarekin lan egiten duten ehun bat nekazari arabarrei kalte larriak ekarriko dizkie murrizketak. Aurten go kanpainan 1.265 hektarea azukre-erremolatxa kontratatu ditu Azucarerak Araban eta 103.000 tona gutxi gorabehera. Batez beste, erremolatxa tona bakoitzeko 33 euro ordaindu ditu enpresak amaitzear dagoen denboraldian.

Prezioen murrizketa azukrearen kotizazioaren beherakadagatik egin dela argudiatu du Azucarera enpresak, horren ondorioz etekinak ere jaitsi egin direlako. Alta, nekazaritza-sektoreak gogoratu du bost urteko akordioa sinatu zutela eta tarte horretan konpainiak etekin handiak izan dituela: "Azken kanpainan, esate baterako, 28,9 milioi euro irabazi zituen. Gainera, Azucarera bezalako konpainia batentzat, lehengaien prezioak jaitea ezin da izan balantze ekonomikoa orekatzeko neurri bakarra", azpimarratu du nekazarien sindikatuak.

Espainiako Estatuako nekazaritza-elkarteek Ministerioaren birtartekaritza eskatu dute akordioa betearazteko; eta UAGA bere aldetik, bilerak ere egiten ari da egunotan Azucarera enpresakoen zein Jaurlaritzako Nekazaritza sailarekin.

ESANAK



IRATI GAZTELURRUTIA
URTXINTXA ESKOLAKO KIDEA

"Teknologia berrietan, aplikazio edo jolas ez sexistak sortzea oso beharrezkoa da"



JOSE DAMIAN GARCIA
IRABAZI-KO BATZARKIDEA

"Irabazi-rekiko errespetu instituzional gehiago erakutsi beharko luke EAJK"



LEIRE SANJURJO
EUSKARALDIKO KOORDINATZAILEA

"Izugarria izan da Euskaraldiak euskaldunon artean izandako harrera"

ZENBAKITAN

Artelanak

Bartolome Esteban Murillo

(1618-1682) margolariari buruz Sevillan egiten ari diren erakusketa batean erabiltzeko 50 artelan maileguan laga ditu Artium museoak. Artista barrokoaren lana "oraindik indarrean" dagoela erakutsi nahi izan dute erakusketa horren bitartez. Margolari espainiarren jaiotzaren 400 urteurrena ospatzeko Sevillan antolatu dituzten ekitaldien baitan kokatzen da erakusketa. Artiumek utzitako artelanen artean, margolanak, eskulturak, argazkiak, grabatuak eta instalazioak daude, beti ere, XX. eta XXI. mendeetako artistek egindakoak.

50

91

Lanpostuak

Enplegu eskaintza publikoa egingo du aurten Arabako Aldundiak, langileen batzordearekin negoziatu eta gero. Orotara 40 plaza eskainiko dira: horietatik 36 administrari lanpostu izango dira, eta 4 albaitari lanpostuak. Hautaketa prozesua "ziur aski" ekainean hasiko dela zabaldu du Aldundiak, ohar batean. 2017an egindako eskaintzako 51 plazak ere barnean hartuko ditu datorren urteko deialdiak.

40

Etxebizitzak

Alokairu sozialean erabili ahal izateko 40 etxebizitza baino gehiago birgaituko dituzte Gasteizen, Udalak eta Jaurilaritzak sinatutako hitzarmen baten barruan. Alokabidek eta 21 Zabalgunek lantalde bat osatuko dute, ekimenaren barruan zein etxebizitza sar daitezkeen aztertzeko. Erabiltzen ez diren zenbait etxebizitza Jaurilaritzaren esku jartzea proposatu du Udalak, bereziki gazteei bideratutako programetan baliatu ditzan.

Babes nahikorik gabe, 2019rako aurrekontuak erretiratu ditu Arabak

2019. urterako aurkeztuta zituen aurrekontuak atzera bota ditu Aldundiak, kontu horiek aurrera egiteko babes nahikorik jaso ez dutelako. PP eta EH Bildu alderdiek aurkeztuak zituzten osoko emendakinak, eta foru gobernuak ez du ikusi alderdi horietako batekin akordioa lortzeko abagunerik. Aurrekontuen luzapena negoziatu beharko dute orain.



Aurtengo aurrekontuak luzatu beharko ditu Arabak. AFA



Zadorran izandako isuria. ZADORRA BIZIRIK

Aguraingo araztegi berria eraikitzeko prozesua abiatu dute

Uraren Euskal Agentziak 6,3 milioi euro inbertituko ditu Agurainen araztegi berria eraikitzeko. Esleipena irabazi duen enpresa-elkar-teak lau hilabeteko epea izango du proiektua idazteko, eta 24 hilabete lanak gauzatzeko. Araztegi berriak Zadorra ibaian azken hilabeteotan izan diren isurketak saihestu ahal izango dituela ziurtatu du URAK.

Ehiztari batek beste kide bat hil du Gaubean, istripuz

73 urteko ehiztari gasteiztar bat hil da larunbatean, Gaubean, beste ehiztari batek jotako tiroak harapatuta. Ehiza uxaldi batean parte hartzen ari ziren biak, Valderejoko natur parketik gertu. Tiroa jaso eta berehalakoan hil da ehiztaria. Gorpua Gasteizera eraman dute, eta Ertzaintzak istripuaren hipotesia esku artean badu ere, ikerketa abiatu du.

EHUn ikasle batek jasandako eraso salatzen dute alderdiek

PP ez ezik, Gasteizko alderdi politiko guztiek batera salatu dute azaroaren 30ean EHUKo Letren Fakultatean ikasle batek jasandako eraso. "Espainiako batasunaren" aldeko elkarte baten bilera-ateratzean izan zen eraso, EFEk zabaldutako bertsioaren arabera. PPK bere kasa jo du, eta ez du gainerako alderdiek adostutako adierazpena babestu.



EHUn elkarretaratzera egin dute astlehenean, eraso salatzeko. EHU

"Eromena izan da laburra grabatzea; eromen polita"

BEÑAT FONTANEDA ZINEGILEA

E. LANAÑO / A. AMENABAR

Emakumeen kontrako indarkeria gai hartuta, film laburra prestatzen dabil Beñat Fontaneda zinegile gasteiztarra. Lantalde mardul batez inguratuta, *La Sirena* film luzea izango denaren aurretik grabatu du *Ni una más* film laburra. Azken lanaren berri emateko, ALEA FM irrati saioan izan da; Gasteizko kaleetan grabatu dute, eta otsailerako izango da prest.

Film luzea prestatzen zenbiltzan, eta laburra egitea erabaki zenuen. Zergatik?

Bi urte eta erdi ibili naiz film luzearen aurreprodukzioa sortu nahian, eta bide horretan gomendatu zidaten laburra egitea; besteak beste, istorioak nola funtzionatuko duen ikusteko. Uda honetan, justu, Miguel Machalsky gidoi adituak nirea aukeratu zuen tailer baterako, eta kristoren indarra eman dit horrek. Ikutu batzuk egin dizkio, eta nik nolabait berriro behar dut; ezin hobeto etorri zait tarte hau film laburra grabatzeko. Osteen etorriko da luzea, ildo berari jarraituta.

Hamaika lagun izan dituzu laburrean lankide: Itziar Rekalde, Josune Velez de Mendizabal, Unai Lopez de Armentia, Halabideoko kideak... Nolako izan da grabazioa?



Beñat Fontaneda, film laburraren grabazioan zuzendari lanetan. JAIZKI FONTANEDA

Izugarria. Sekulako saltsa izan dugu, lantalde potoloa izan delako. Baina sentsazioa izan da sortu den inertzia eta energia izugarria izan dela. Bestetik, hainbeste urtez buruan dituzun gidoi lerro horiek aktoreen ahotan entzutea sentsazio itzela izan da. La Monstrenka eta Baratza aretoak izan dira nirekin elkarlanean labur honetan, eta lagun pila bat inguruan; kristoren ekipoa sortu da, egia esan.

Nolako antolaketa behar du halako film labur batek?

Eromena izan da. Zenbaitetan lan egin izan dut ekoizpen lan handietan, errealizadore gisa...

baina zama beste norbaitek eramaten zuen lan horietan. Oraingo honetan motxila pisutsuena nik eraman dut, eta bikoiztu egin dira lanak, ekoizpen lanetan eta teknikoki zuzentzen aritu naizelako. Eromen oso polita izan da. **Indarkeria matxista izan da ardatza. Zergatik aukeratu duzu gai hori?**

Gizartean dugun arazo handienetako bat da, eta hausnarketa egin behar dela uste dut. Hainbat urte daramatzat ideia honekin bueltaka, eta, arakatzen ibili eta gero, deigarria iruditu zait oso lan gutxik hitz egin dutela gai honetaz. Telebistan etengabe

agertzen den arren, albisteetan ageri den arren, ikus-entzunezko oso gutxi hitz egiten dute zuzenki arazo potolo honetaz. Eta nire aletxoak jartzen saiatzen ari naiz, hausnarketa eta eztabaida sortu nahian. Ez daukat erantzun osorik, baina galderak egin behar dira.

Thriller moduan landu duzu.

Bai, eta aukera eman dit ate ireki bat uzteko; erantzun potolorik gabe, eta galderak airean. Non kokatzen zara zu ikusle gisa? Hori da geratzen den galdera nagusia.

Hausnarketa hori egiteko fikzioa garrantzitsua dela uste dut; fikzioari arma deitu ahal badiezaiokegu, oso arma potentea da.

Zer da zineman bilatzen duzuna?

Bizi. Bidean jarraitzea, jorratu eta ikastea. Ikus-entzunezkoak

egitea sekulako esperientzia da. Umiltasunez, eta daukazun ideia hori azaleratzeko asmoarekin, pila bat gozatzen da. Sufritu ere bai, sufritzen da, baina lanbide oso interesgarria dela uste dut.

Zinemagintzak nolako egoera bizi du inguruan?

Aurten film bat grabatu da Gasteizen, iaz Araban pare bat... izugarri ondo dagoela uste dut. Paul Urkijo lagunak esan berri duenez, sortzen ari da nolabaiteko industria bertan; Madrilerako jo beharrean hemen sortzera animatu gara batzuk. **'Errementari', 'Handia', 'Vitoria, 3 de marzo'...** Hainbeste film inguruan izateak animatu zaitu? Alde batetik animatzen zaitu, eta beste alde batetik txikiago egiten zaitu. Indar osoz zabiltzanean izugarria da; eta, aldi berean, ikusten duzunean

zer nolako eraikinak sortzen ari diren nire inguruan eta ni oraindik kar kar... Baina hor dago gakoa, ezta? Lanean jarraitzea.

Nolakoa izango da laburretik luzerako salto hori? Bi urte barru ikusiko dugu?

Hemendik bi edo hiru urtera izango da hori, baina orain goza dezagun laburraren bidea. Dena bikoiztuko da, dudarik gabe: lantaldea, orduak, mugitu behar den jende pila... eta, noski, aurrekontua guztiz. Luzeera aldatzearekin batera, formatu aldaketa ere izango da, konplexutasun ugariarekin. Era berean, beste merkatu batzuetarako jauzia izango da; mundu horretaz pixka bat ikasten ari naiz, eta interesgarria izango da ziur. Bidea da azken finean garrantzia duena. ■■■



ERAKUSKETAK

Kolore nomadak

Menchu Lamas

> 2019.01.20

Queda mucho pasado por delante. Oroí

Artium bilduma

> 2018.08.25

Liburuez eta poemez

Liburu erakusketa

> 2019.03.29

JARDUERAK

ABENDUKO ZUBIA

Erakusketak, visita gidatuak, miaketa-koadernoak, lantegiak

12 | 6,7,8,9 11:00 > 20:00

Lantegia: *Belar-bilduma guztiontzat*

12 | 6,7,8,9 11:30 > 13:30

17:30 > 19:30

ARTISTAK GUREAN

Mateo Maté

12.11 19:00

FAMILIARTIUM

Zer gertatzen da ilunpean?

12.15 17:00 > 19:00

EGUBERRIA

Arte askodun Eguberri bat guztiontzat

Familientzako gunea

Egiatzatu ordutegiak

Lantegiak

12.26 > 30 11:30 > 13:00

17:30 > 19:30

01.05 11:30 > 13:00

Argibide gehiago:

www.artium.org

Testuingurutik kanpo

BERTSOLARITZA



ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Bertxoko sariketa: Arabako Bertsozale Elkartearen eta Hala Bedi Irratiaren arteko lankidetzari esker martxan jarritako ekitaldi... ez oso konbentzionala. Joan den azaroaren 29an bukatu zen aurtengo edizioa, Hala Bedi tabernan, eta Aroa Arrizubieta izan zen aurtengo "tronpetaduna".

Hamabi bertsolari arabar gaztek hartu dute parte aurtengo edizioan. Hala Bedi irratiako Bertxoko irratsaioko crew-a izan da antolatzaile, eta laguntzaile izan ditu Lautadako, Mendialdeko eta Aramaikoko Bertso Eskolak. Ez baitira alferrik egin kanporaketak Arabako lurralde luze-zabalean: Zalduondon, Korresen eta Aramaion, hurrenez hurren.

Hala ere, Gasteizko Hala Bedi tabernan izan zen sariketaren hitzordu nagusia, azaroaren 29an. Aurreko hiru saioetatik bina bertsolarik egin zuten aurrera, eta horrela geratu zen finala osatu zuten seikotea: Jon Ruiz de Pinedo, Aitor Ugarte, Martin Abarrategi, Xabi Antia, Aroa Arrizubieta eta Unai Anda.

Horraino, dena behar den bezala, ohiko sariketen formatua errespetatua. Zortziko handian eta txikian ofiziotan aritu ziren parte-hartzaileak, binaka. Hor ere, egitura klasikoari men eginez. Ordea, hirugarren bertsoaldia iritsi zenean apurtu ziren eskema



ABE

guztiak. Bertxokok berezkoa duen ariketa *sui generisean* aritu behar izan zuten 6 bertsolariek: MC Serapio imitatuz egin beharreko rap bereziaren eritmorra. Serapio Lopez bertsolari baranbioarraren estilo nahasezinean, alegia: arabar bertsolari gazteen artean jada ezagun egin den rap *performance* berezian. Hala

**AZKEN BERTSOALDIA
IRITSI ZENEAN APURTU
ZEN ESKEMA; ARIKETA
'SUI GENERISEAN'
ARITU ZIREN**

Bedi tabernako ikus-entzuleek bat egin zuten bertsolariekin ariketa horretan. Gauzak bere ohiko testuingurutik ateratzen abilak dira bertxokotarrak, eta, hala egin eta funtzionatzen duenean, gozamen hutsa da.

Aitor Ugarte aramaioarrak eta Aroa Arrizubieta gasteiztarrak egin zuten aurrera buruz-burukoan. Estua izan zen azken txanpa, eta Aroa Arrizubietak eraman zuen saria, azkenean.

Sariketaren saioren batekin gozatu duenak, edo lerro hauek irakurri eta gehiago jakiteko gogoia piztu zaionak, erraza dauka: asteazkenean, 20:00etatik aurrera, Hala Bedi irratiaren piztu, eta entzun Bertxoko! ■■■

IGANDEAK JAI

familia giroan euskaraz



Mozorro tailerra & “Mugi Boogie” DJ NAI

3-10 urte bitarteko haurrentzat gomendatuta

Eguna: Abenduak 16

Lekua: Ramon Bajo Ikastola · Eskola kalea, 16

Ordua: 17:00etatik 19:00etara

familian euskararen transmisioa lantzen!

Antolatzailea

Laguntzaileak

Babesleak



350 urte bete ditu

GURE BAZTERRAK



Navaridas

Kuadrilla: Arabako Errioxa.

Udalerrria: Navaridas.

Biztanleak: 209 (2018ko Eustaten datuen arabera).

Bitxikeria: Alvaro Sodupe (1843-1889) militar eta kazetari karlista Navaridasen jaio zen.

ARGAZKIA: PHOT.OK

TESTUA: ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Orain dela 350 urte Guardiako eskumenetik kanpo geratu zen Navaridas, eta hiribildu izendapena jasotzen duen forua eman zioten. Urte osoan zehar hitzaldiak eta bestelako ekitaldiak antolatu dira herrian gertakizuna gogoratzeko. Azkenik, iragan abenduaren 4ean, herriko plazan, "denboraren garrafoi bat" lurperatu zuten herritarrek, 400. urteurrenean irekitzeko konpromisoarekin. Gainera, Udalak oroitzapenezko zigiluak argitaratu ditu eta ONCEko kupoia ere kaleratu dute hiribildutza gogoratzeko.

Navaridasek 1668. urtean jaso zuen hiribildu izendapena, Guardiako jaurerritik banatu zen eta Arabako Batzar Nagusietan eserleku bat lortu zuen.

Dena dela, Castejon Gaina da Navaridas herriaren lehenbiziko aztarna. Hamasei hektareako Lehen Burdin Aroko giza-

kokaleku bat da eta oso aztarnategi berezia, bikain kontserbatu delako, historiaren ikuspuntutik oso interesgarria delako eta etorkizunari begira ere aukera handiak eskaintzen dituelako. Castejon Gaina herrixka handia izateaz gainera, leku nabarmena du paisaian, leku askotatik ikusten delako eta bertatik inguruko bideen

gaineko kontrola erabatekoa delako.

Babestutako esparruaren barruan erromatarren Goi Inperioaren garaiko nekazaritza-ustiategi baten hondakinak ere badaude, eta, muinoko tokirik garaienean, Erdi Aroko dorre baten egitura.

Hartara, Castejon Gaineko herrixkaren eremu arkeologikoa, Kultur Ondasun gisa kalifikatuta dago, Monumentu Multzoaren kategoriarekin, eta 2016. urtean ireki zen aztarnategiari buruzko interpretazio zentroa.

Alta, Castejon Gaina ez da Navaridasek duen antzinako erakusgarri bakarra. Herritik gertu dago ere Santa Eulaliako X. mendeko nekropolia. Gutxienez hamahiru hilobi antropomorfo ditu harriaren zulatuta. Aurten baliabide turistiko gisa sustatzeko konpromisoa hartu dute Aldundiak eta Jaurilaritzak.

Mahasti liluragarriez inguratuta, herriaren landutako ardoa ere probatzeko aukera dago.



EMAN ZUEN ARABAKO TXOKO KUTUNAREN BERRI. erredakzioa@alea.eus

Irakurleen txokoa

POSTONTZIA

Ilune Basterra Txurruka Gasteiz

Zorionak Ilu maitia!!! beste urte bat joan da, emozio ta poztasunez betea, zu gertu eukitzea beti baita zoragarria. Datorkigun urte hau ere oso handia izango dela ziur gaude!!! Ondo hasten dituzu 34ak, ospakizunez blai. Ta ez zara kexatuko jarri dizugun argazkiagatik...Topera urte berriarekin. Zure lagun guztien partez.



ZOKKETAK

Irabazleak:

Errigora saskia: Maria Jesus Kortabitarte*

(**Hilabetean zehar harpidetu direnen artean eginiko zozketa.*)



Bi libururen zozketa

Juan Carlos Etxegoien *Xamar* idazlearen *Etxera bidean*. Hilaren 19ra arte eman daiteke izena.



Hala Bedin afaria

Bi lagunentzako, asteburu batean. Zozketan parte hartzeko, eman izena urtarilaren 8a baino lehen.

PARTE HARTU: www.alea.eus/zozketak



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).



Telefonoz:
945 71 60 09
On-line:
alea.eus/harpidetzak
E-mailez:
harpidetza@alea.eus

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ARABAKO ALEAren fitxategi batean sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena kudeatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@alea.eus

AGENDA Abenduaren 14tik 20ra

Euskararen agenda

MUSIKA

AMURRIO Eraso

Fetitxe eta The Free Wheel taldeekin batera.

Ostirala 14, 22:00etan, Burubio kultur elkartean.

GASTEIZ Txuma Murugarren

Eskilarapeko Soinuak zikloa.

Osteguna 20, 19:30ean, Falerina tabernan.

ANTZERKIA

GASTEIZ 'Gizon zoriontsuaren alkandora'

Teatro Paraisoren eskutik. Ainara Unanue eta Aitor de Kintanarekin.

Igandea 16, 18:00etan, Principal antzokian.

DANTZA

AGURAIN 'Korrontzi dantzan'

Korrontzi eta Jeiki dantza taldearen ikuskizuna.

Larunbata 15, 19:00etan, Harresi aretoan.

HAURRAK

AMURRIO 'Musua' ikuskizuna

Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin.

Ostirala 14, 18:00etan, kiroldegian.

GASTEIZ 'Kokitoren amona'

Aitor M. Vinagret kontalariarekin.

Larunbata 15, 11:00etan, Lakuako liburutegian.



GATIBU

GASTEIZ Gatibu

Gernikako taldeak 'Azken indioak' azkeneko lana aurkeztuko du Gasteizen. Zazpi abesti biltzen ditu diskoak; soinu aldetik, berrikuntza ugarirekin dator, haize instrumentuak tartean. Texaseko (AEB) Sonic Ranch estudio ospetsuetan grabatu dute. *Larunbata 15, 20:30ean, Jimmy Jazzen.*

LAUDIO 'Galtzagorrien mozorroa'

Pertsonaia mitologikoen inguruko mozorro tailerra.

Larunbata 15, 17:30ean, Lamuza parkean.

BERTSOLARITZA

GASTEIZ Zurrumurruen aurkako bertso saioa

Unai Agirre Goia, Amets Arzallus, Sustrai Colina, Igor Elortza, Beñat Gaztelumendi, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze eta Aitor Sarriegi bertsolariekin.

Asteartea 18, 19:00etan, Europa jauregian.

BESTELAKOAK

GASTEIZ 'Etxera bidean' liburua

Juan Carlos Etxegoienek, 'Xamar' idazleak, liburua aurkeztuko du.

Asteazkena 19, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

Jimmy jazz gasteiz ABENDUA

Os. 14 BRUJERÍA + RATOS DE PORAO

Lr. 15 GATIBU + GRITANDO EN SILENCIO

Og. 20 BOCABEATS COMEDIA

Os. 21 DEAD BRONCO + LOS CHIVATOS DE ANA FRANK

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM

**ITURRIETA
SAGARDOTEGIA**



**TXOTX
EGIN!!**



Bº Arraga, 2 / Aramaio
☎ 945 44 53 85 / 685 72 15 93
jj.iturrieta@Yahoo.com
iturrietasagardotegia.blogspot.com.es



Kuartango
SAGARDOTEGIA

Servicio de autobús
Zuhatsu-Kuartango 21
t.699 747 730 · 945 362 683



Servicio de autobús
TREBIÑU Sagardotegia
☎ 945 244 852-657 736 599 · ASKARTZA-TREBIÑU



Arabako sagardoa!

EUSKARALDIA

Lagundu Gasteiz garbi mantentzen

ESKATU HITZORDUA tresna handiak
jasotzeko DOAKO ZERBITZUAN
telefono honetan

945 28 65 00

200 euroko isunak
saihestuko dituzu

